

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan, balioan oinarritutako negozio-eredu batean oinarrituko gara. Hau, da bezeroari eskaintzeko balioa sortzea, produktuen edo zerbitzuen kalitatea zainduz.

Enpresa bat aurrera ateratzeko kostu batzuk dakartza, kostu guzti hauek kostu egiturak dira eta hauek ezaugarri hauek dituzte:

Kostu finkoak: aldatzen ez diren kostuak dira, hala nola; alokairua, lizentziak, zergak, aseguruak, soldatak, internet konexioa, publizitatea, hornitzailearen ordainketa...

Kostu aldakorrak: ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen diren kostuak dira, hau da; lehengaiak, materiala, erregaiak, ura, elektrizitatea...

Eskala ekonomia: produzitutako unitateen kopurua handitzean, kostuen murrizketak lortzen direnean gertatzen da.

Honen barne, bi talde desberdintzen dira:

- Barne eskala ekonomia.
- Kanpoko ekonomia.

Gure negozio-ereduak bi kostu-mota hauek kontuan hartuko ditu. Produktuaren arabera, kostu finkoa eta aldakorra izango du. Badakigu, hirugarren batzuegandik beranduago eraldatuko ditugun bizikletak lortuko dugunez, momentu batzuk sortarazi daitezke non,, gure errua ez izan arren, hornitzaileen bizikleta gutxi jasotzen ditugun. Horregatik kostuak aldakorrek izatea gerta daiteke gure eguzki panel bizikletetan.

Izan ere, badira beste produktu batzuk, gure ekoiztutakoak. Erreziklatuak diren bizikleten osagarriak adibidez. Hauekin ere produkzioan arazoak izateko aukera existitzen da, eta kostu aldakor baten menpe egongo dira.

Enpresa oso txiki bat bezala hasiko garenez, noski ez dugula gure lokal propioa izango hasierako momentutik, gure propietatean. Horregatik, espero dugu lokalen bat alokairu bezala hartu ahal izatea eta horrek kostu finkoa suposatuko zigun. Ildora jarraituz, enpresa bezala deklaratzeko beharrezkoak diren legedizko lizentzia guztiak ordaintzea derrigorrezkoa izango dugu eta batzuk urtero edo denboraz-denbora ordaintzeko izango ditugu, kostu finko bezala.

Beharrezkoa da esatea, daukagun enpresa eredua dela eta, lehengaietik ez dugula gehiegi kezkatu behar, eta horrek zama handia kentzen digu kostuen eta produkzioaren aldetik. Baina alde negatiboa da, beste hirugarren batzuen eskuetan utziko dugula beraiek nahi duten prezioa guri jartzen, borroka handia eman ahal izan gabe. Azkenean gure hornitzaileen menpe egongo garelako modu batean. Hornitzaileak izanda, ordaintzeko beharra izango dugu guri produktuak emategatik, beraz beste kostu finko bat izango zen.

Gure kostuetan ere, etorkizun batean, gure langileen soldata eta ongizana sartu beharko dugu. Hilabetero ordaintzeko kostu finkoa suposatuko du eta hasiera batean, guk eramango ditugu negozioaren kostu guztiak enpresa barruan, gure ekonomista propioak. Ez duelako inongo zentsurik ekonomista bat ordaintzea, enpresa txikia bada, langile gutxiekin.